

LAN-POLTSAK ERATZEKO OINARRIAK: ENPLEGU TEKNIKARIAK, ENPRESA TEKNIKARIAK ETA SOLDADURA/GALDARAGINTZAKO IRAKASLEAK

OINARRI OROKORRAK

1. Deialdiaren xedea eta ezaugarriak

Deialdi honen xedea da Urola Kostako Udal Elkartearen aldian aldiko beharrei erantzun eta ordezkapenak egiteko honako lanpostu hauetarako lan-poltsak osatzea: enplegu teknikaria, enpresa teknikaria eta soldadura/galdaragintzako irakaslea.

Ordezkapen edo lanpostu hutsak beteko dira bitarteko funtzionarioaren izendapenaren bidez, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen, Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren, 10. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.

Lan-poltsak eratzeko prozedura merezimenduen lehiaketa bidezkoa izango da.

Eratzen diren lan-poltsak 3 urteko iraupena izango dute, lan-poltsak eratzeko ebazpena argitara ematen denetik hasita.

Lan-poltsak eratzeko lehiaketaren deialdia iragarriko da eskualdeko komunikabideen bidez eta Urola Kostako Udal Elkarteko iragarkien taularen eta webgunearen bidez (www.urolakosta.eus).

Halaber, deialdiaren inguruko komunikazioak (emaitzak, oharrak...) jakitera emango dira Udal Elkartearen webgunearen bidez.

2. Lan-poltsak

Lehiaketa honen bidez 3 lan-poltsa eratuko dira. Hona hemen lan-poltsa bakoitzarekin beteko diren lanpostuen eginkizun nagusiak:

- **Enplegu teknikaria:** enplegurako lan orientazioko ekintza edota programen kudeaketa eta garapena.
- **Enpresa teknikaria:** enpresen lehiakortasuna hobetzeko ekintza eta programen kudeaketa eta garapena, prospekzio lanak barne.
- **Soldadura/galdaragintza irakaslea:** irakasle lanak honako espezialitatean: fabrikazio mekanikoa, eraikin metalikoak, soldadura eta galdaragintza, oxigas eta mig-mag soldadura.

Lan-poltsa bakoitzean parte hartzeko baldintzak eta merezimenduak baloratzeko irizpideak **oinarri zehatzetan** daude finkatuta.

3. Eskabideak

Lan-poltsak eratzeko lehiaketan parte hartzeko eskabidea Urola Kostako Udal Elkarteari zuzenduko zaio eta oinarri hauei erantsita doan I. ERANSKINEKO ereduaren arabera egingo da. Izangaiek eskabidean adieraziko dute hirugarren oinarrian eskatutako baldintza orokor guztiak eta

dagokion lan-poltsako baldintza zehatz guztiak betetzen dituztela, beti ere eskabideak aurkezteko epea bukatzen deneko data erreferentziazat hartuta.

Eskabidearekin batera aurkeztu behar dira parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko agiriak eta lehiaketan balioesteko merezimenduen egiaztagiriak, hala nola:

- NANaren fotokopia konpultsatua edo agiri baliokidearena atzerritarren kasuan, konpultsatuta.
- Eskatutako tituluaren kopia konpultsatua.
- Dagokion hizkuntza eskakizunaren (edo baliokidearen) egiaztagiriaren kopia konpultsatua.
- Curriculum vitae.
- Lan-bizitza eguneratua.
- Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatutako lan-esperientziaren ziurtagiriak.
- Lehiaketan balioesteko merezimenduen (prestakuntza eta lan-esperientziaren) egiaztagiriak, konpultsatuta. Merezimenduak egiaztatzeko moduari eta egiaztagiriak aurkezteko moduari buruz, ikus oinarri hauetako 6. baldintza.

Lehiaketan baloratuko diren merezimenduak eskabidean adierazi behar dituzte izangaiek. Epaimahaiak ez du kontuan hartuko eskabidean adierazten ez den merezimendurik.

Deialdian parte hartzeko eskakizunak nahiz merezimenduak egiaztatzeko, jatorrizko agiriak edo konpultsatutako kopiak aurkeztu behar dira.

Kopiak Udal Elkartearen erregistroan edo gaitasuna duen fede emaile publiko baten aurrean konpultsatu ahal izango dira. Hori egiteko, jatorrizko agiria eta kopia aurkeztu behar dira.

Eskabideak aurkeztuko dira Urola Kostako Udal Elkartearen sarrera-erregistroan (Urdaneta bidea 6, Zarautz), 8:00etatik 15:00etara. Aurkezteko epea amaituko da **2016ko uztailaren 8an (egun hori barne)**.

Horrez gain, eskabideak aurkeztu ahal izango dira azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak aurreikusitako bestelako bideak erabiliz.

Aipatutako Legearen 38.4 artikuluari jarraiki eskabidea postetxean aurkezten bada, irekitako kartazalean aurkeztuko da, postetxeko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaion, eskabideak aurkezteko epean aurkeztu dela ziurtatzeko.

Hori ezinbesteko baldintza izango da eskabideari Udal Elkarteko sarrera-erregistroan postetxean aurkeztutako datarekin sarrera emateko. Eskabideari jarri behar zaio zigilua.

4. Onartu eta baztertutako eskabideak

Onartutako zein baztertutako eskabideen zerrendak Udal Elkartearen webgunean argitaratuko da.

Baztertutako eskabideek 5 laneguneko epea izango dute baztertzea eragin duten akats edo gabeziak osatzeko edo zerrenda horien aurkako erreklamazioak aurkezteko, zerrendak webgunean argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Behin-behineko zerrenda horiek behin betiko bilakatuko dira erreklamaziorik ez bada. Erreklamaziorik baldin badago beste erabaki bat emango du Lehendakaritzak, erreklamazioa onartu edo ezesteko eta behin betiko zerrenda onartzeko. Erabaki hori eta behin betiko zerrenda argitara emango da, behin-behineko zerrenda argitara emateko modu berean.

5. Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzailea honako kide hauek osatuko da:

- Epaimahaiburua: Udal Elkarteko Prestakuntza eta Enplegu Saileko arduraduna.
- Epaimahaikideak: Udal Elkarteko Enpresa Sustapeneko Zerbitzuko arduraduna; Udal Elkarteko Soldadura Zentroko arduraduna; Udal Elkarteko Euskara eta Komunikazio arduraduna.
- Idazkaria: Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzailea.

Epaimahaiko kideak Udal Elkarteko lehendakariak izendatuko ditu eta izendapena Udal Elkarteko webgunean emango da argitara.

Epaimahaiak jarduteko autonomia osoa izango du eta prozeduraren legezkotasuna eta objektibotasuna zaindu eta bermatuko ditu. Epaimahaiak jokatuko du 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren, 22-27. artikuluetan (biak barne) xedatutakoaren arabera.

Epaimahaia osatzen den ekitaldian, epaimahaiak, hautaketa-prozesua behar bezala eta egoki bideratzeko behar diren erabakiak hartuko ditu. Epaimahaiaren jardura baliokoa izateko, kideen gehiengoak parte hartu behar du, eta erabakiak bertarutzen direnen gehiengoak hartuko ditu. Kide guztiek ahotsa eta botoa izango dute.

Era berean, Epaimahaiak oinarrian inguruan sortzen diren zalantzak argituko ditu, hautaketa-prozesua behar bezala burutzeko behar diren erabakiak hartuko ditu eta oinarriotan zehazten ez diren gorabeheratan aintzat hartu behar diren irizpideak ezarriko ditu, indarrean dagoen araubidearen arabera.

6. Balorazioari buruzko oharra

Ez da balioetsiko eskabidean zehazten ez den eta behar bezala egiaztatzen ez den merezimendurik.

Lan-esperientzia egiaztatzeko aurkeztu behar dira batetik, bizitza laborala eta, bestetik, enpresako ziurtagiriak. Enpresa-ziurtagiriek argi eta garbi agertu behar dituzte honako datuak: lanpostuaren izena, kontratuaren iraupena eta lanaldia eta burututako eginkizunak. Horrela ez bada, Epaimahaik erabakiko du balioetsi ala ez eta nola balioetsi. Enpresa-ziurtagiririk izan ezean, lan kontratuaren kopia ere baliokoa izango da, lanpostuaren eginkizunak zehazten baditu.

Autonomo gisa izandako lan-esperientzia egiaztatzeko honakoak aurkeztuko dira: lan-bizitza, autonomo altaren egiaztagiria, dagokion epigrafearekin, egindako zerbitzuen egiaztagiriak (fakturak, enpresa ziurtagiriak...).

Lan-esperientzia egiaztatzeko aurkeztutako dokumentuek esperientziaren funtzio eta eginkizunak eta epeak ez badituzte argi eta garbi zehazten, Epaimahaiak ez du merezimendu hori baloratuko.

Prestakuntza egiaztatzeko agiriek adierazi behar dituzte ikastaroaren izenburua, edukia eta iraupena. Horrela ez bada, Epaimahaiak ez du merezimendu hori baloratuko.

Nolanahi ere den, beharrezkoa dela irizten badio, Epaimahaiak aukera izango du lan-esperientzia edo eta prestakuntza egiaztatzeko dokumentu osagarriak eskatzeko edo egiaztapen lanak egiteko.

7. Behin-behineko eta behin betiko emaitzak

Merezimenduen balorazioaren behin-behineko emaitzak onartu eta webgunean argitaratu egingo ditu Epaimahaiak eta hautagaiei 5 laneguneko epea izango die erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko dira Udal Elkarteko sarrera erregistroan. Erreklamaziorik ez baldin bada, behin-behineko emaitzak behin betiko bilakatuko dira besterik gabe. Erreklamaziorik baldin bada, aztertu, dagokiona ebatzi eta behin betiko emaitzak onartu eta argitaratuko ditu Epaimahaiak.

8. Epaimahaiaren proposamena eta lan-poltsak eratzea

Udal Elkarteko lehendakariak, behin betiko emaitzen Epaimahaiaren proposamena kontuan hartuta, aldi baterako lan-poltsak eratuko ditu.

Bi izangaik puntu kopuru berbera baldin badute, lan-poltsako hurrenkera irizpide hauen arabera eta hurrenkera honekin finkatuko da:

1. Puntuaziorik altuena duena lanpostuaren eginkizunekin zerikusi zuzena duen lan-esperientziaren atalean.
2. Puntuaziorik altuena duena lanpostuaren eginkizunen osagarri den lan-esperientziaren atalean.
3. Puntuaziorik altuena duena prestakuntzaren atalean.

9. Ordezkapenak eta lanpostuak betetzea

Titularrak ordezkatu edo aldi bateko premiei erantzuteko lanpostu hutsak bitarteko funtzionarioen bidez bete behar direnean lan-poltsak joko da, honako prozedura honi jarraiki:

- Dena delako lan-poltsako lehen hiru hautagaiei deituko zaie elkarrizketa egiteko. Horietakoren batek uko egiten badio, laugarrenari deituko zaio, eta gisa berean hiru hautagai elkarrizketatu arte edo zerrenda agortu arte. Elkarrizketak 15 puntuko balioa izango du (bartzertzailea izango da eta gaintzeko 7,5 puntu eskuratu beharko dira) eta emaitza lehiaketan lortutako puntuazioari gehituko zaio. Horrenbestez, batura egin eta orotara puntuaziorik altuena duen hautagaia kontratatuko da. Elkarrizketak bideratu, egin eta baloratuko ditu oinarriotan ezartzen den epaimahai kalifikatzaileak.
- Soldadurako irakasleen lan-poltsaren kasuan, Epaimahaiak erabaki ahal izango du elkarrizketaz gain ariketa praktiko bat egitea (lehen hiru hautagaiei). Ariketa horrek 15 puntuko balioa izango du (ariketa bartzertzailea izango da eta gaintzeko 7,5 puntu eskuratu beharko dira) eta emaitza lehiaketan eta elkarrizketan lortutako puntuazioari gehituko zaio. Horrenbestez, batura egin eta orotara puntuaziorik altuena duen hautagaia kontratatuko da. Ariketa prestatu eta baloratzeko Epaimahaiak Udal Elkarteko Soldadura Zentroko irakasleen laguntza eta aholkularitza jaso ahal izango du, beharrezkoa dela irizten badio.

- Ordezkapena karrerako funtzionario batena baldin bada, lanpostu horrek Udal Elkartearen lanpostuen zerrendan dituen betekizunak (titulazio zehatza, hizkuntza eskakizuna...) betetzen dituzten lan-poltsako hautagaiei deituko zaie elkarrizketa egiteko. Elkarrizketak egiteko gorago ezarritako prozedurari jarraituko zaio.
- Halaber, bete behar den aldi bateko lanpostuak betekizun zehatzak baldin baditu (titulazioa, hizkuntza eskakizuna edo beste batzuk), baldintza horiek betetzen dituzten lan-poltsako hautagaiak hartuko dira elkarrizketa egiteko. Elkarrizketak egiteko gorago ezarritako prozedurari jarraituko zaio.
- Oinarri hauen arabera eratzen diren lan-poltsak indarrean daudela, lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia egiten bada eta deialdi horrek lan-poltsa bat eratzea aurreikusten badu, deialdi horren bidez betetzen den lanpostuko hutsune eta ordezkapenak beteko dira bere lan-poltsaren bidez eta, betetzea ezinezko balitz, oinarri hauen bidez eratuko direnen bidez.
- Udal Elkarteak lan-poltsako pertsonari lanpostu bat eskaintzen dienean, eskaintza hori onartzeko epea egutegiko bost eguneko izango da gehienez ere, deia edo mezu elektronikoa jaso eta hurrengo egunetik kontaktatzen hasita. Halaber, laneratzeko epea hamabost eguneko izango da gehienez ere (beranduago laneratzeko aparteko arrazoiak direnean izan ezik), deia edo mezu elektronikoa jaso eta hurrengo egunetik kontaktatzen hasita.

10. Izaera pertsonaleko datuak

Izangaien izaera pertsonaleko datuak "giza baliabideak" izeneko fitxategian sartuko dira. Fitxategi hori Udal Elkarteak Idazkaritzak kudeatuko du eta aukeraketa prozesua bideratzeko erabiliko du. Izangaiek fitxategiko datuetara sartzeko, datuak ezeztatzeko, haien kontra agertzeko edo zuzentzeko eskubidea izango dute.

Datu pertsonalak tratatuko dira abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuaren (izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun neurriei buruzko araudiaren) arabera.

Era berean, izangaien identifikazio datuak eta harremanetarako telefono zenbakiak beste toki administratibo batzuei emango ahal izango dizkie Udal Elkarteak, aldi baterako eta gisa bereko lan beharrak betetzeko erabil ditzaten.

11. Agirien itzulketa

Izangaiek eskubidea dute hautaketa-prozesuan zehar aurkeztutako agiriak berreskuratzeko, Udal Elkarteak lan-poltsak eratzen dituzten izangaiek izan ezik.

Hautaketa-prozesua amaitu eta 3 hilabeteko epea igaro ondoren, Udal Elkarteak agiri horiek desegin eta desagerrarazi egin ahal izango ditu.

12. Gorabeherak

Oinarri hauetan zehaztu gabekoetarako, arlo horretan indarrean dagoen araubidea aplikatuko da.

Epaimahaiak eskubidea du hautaketa-prozesuan zehar sortzen diren zalantzak argitu eta prozesu hori behar bezala burutzeko hartu behar diren neurri eta erabakiak hartzeko, oinarriotan zehaztu gabe dauden alderdiei dagokienez.

Deialdi hau, oinarriak eta horietatik nahiz Epaimahaiaren jardueratik eratorzen diren administrazio egintzak inpugnatu egin ditzakete interesdunek, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunarenak, aurreikusitako era eta epeetan.

OINARRI ZEHATZAK I

ENPLEGU TEKNIKARIEN LAN-POLTSA

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK MEREZIMENDUEN BALORAZIOA

13. Parte hartzeko baldintzak

Enplegu teknikarien lan-poltsan onartua izan eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko ondoren zehazten diren baldintza orokorrak eta zehatzak (lan-poltsa zehatzari dagozkion baldintzak) bete behar dituzte hautagaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen:

13.1. Baldintza orokorrak

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek 21 urte baino gutxiago badituzte edo gehiago izanik bere kontura bizi badira.

Halaber, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan egoiliar gisa dauden pertsona atzerritarrek, nahiz eta aurreko paragrafoetan adierazitako baldintzak bete ez. Horietako bat hautatua izango balitz, kontratua gauzatu aurretik egiaztatu egin beharko luke kontratuaren objektu den jarduera burutzeko behar duen administrazio-baimena baduela.

- b) 16 urte betetik izatea eta derrigorrezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.
- c) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Baldintza hori egiaztatu beharko dute kontratua egiteko proposamena jasotako izangaiak, eskatzen zaien unean.
- d) Diziplina-espedita bidez administrazio publikoen, organo konstituzionalen edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen zerbitzura aritzeko bananduta ez egotea; halaber, epai bidez desgaitze absolutu edo berezirik ez izatea, lanpostu edo kargu publikoan aritzeko, funtzionarioen eskalan sartzeko edo, lan itunpeko langileen kasuan, desgaitutako lanpostuaren antzeko eginkizun edo jarduerak burutzeko. Beste estatu bateko naziotasuna izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea; halaber, bere estatuan enplegu publikoa lortzea galarazten dion diziplina zigor edo antzekorik ez izatea.
- e) Administrazioan lan egiteko bestelako bateraezintasun edo ezintasunik ez izatea, dagozkion lege-xedapenek ezarritakoaren argitara.

13.2. Baldintza zehatzak

Enplegu teknikarien lan-poltsan parte hartzeko, aurreko baldintza orokorrez gain, baldintza zehatz hauek bete behar dira:

- a) Honako unibertsitate graduren baten tituluaren jabe izatea edo eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea: Psikologia, Pedagogia, Psikopedagogia, Soziologia edo Gizarte Hezkuntza (edo baliokideak).
- b) Lan-esperientzia: gutxienez urtebeteko esperientzia enplegurako lan orientazioko ekintzetan.
- c) 3. hizkuntza eskakizunaren tituluaren jabe izatea (edo C1 mailaren baliokidea).

14. Merezimenduen lehiaketa

Epaimahaiak onartutako izangaien merezimenduak baloratuko ditu. Hona hemen enplegu teknikarien lan-poltsan merezimenduak baloratzeko kontuan hartuko diren irizpideak:

Lehiaketan gehienez **35 puntu** lortu ahal izango dira. Ondoko merezimendu hauek baloratuko dira:

1. Lan-esperientzia enplegurako ekintzak garatzen eta kudeatzen (aholkularitza, lan orientazioa, prestakuntza), administrazio publikoan nahiz enplegu zerbitzuen erakunde laguntzaile gisa jarduten duten enpresa pribatuetan. Honela baloratuko da: hilabete oso bakoitzeko 0,5 puntu. Atal honetan gehienez ere 15 puntu lortu ahal izango dira. Parte hartzeko eskatutako lan-esperientzia ez da baloratuko.
2. Lan-esperientzia, enplegurako ekintzekin zerikusia duten jarduera osagarrietan, administrazio publikoan nahiz enpresa pribatuan. Honela baloratuko da: hilabete oso bakoitzeko 0,25 puntu. Atal honetan gehienez ere 8 puntu lortu ahal izango dira.

Lanpostu batek aurreko irizpide horiekiko zer-nolako antza duen Epaimahaiak aztertu eta erabakiko du, eta egoki iritzitako zuzenketa faktoreak aplikatuko ditu, bai hilabete bakoitzeko eman beharreko puntu kopuruari dagokionez, bai lor litekeen gehienezko kopuruari dagokionez.

3. Prestakuntza: enplegurako ekintzen kudeaketarekin lotuta dauden prestakuntza osagarri, titulu akademiko, jardunaldi, ikastaro eta antzekoak. Gehienez 8 puntu lortu ahal izango dira, atal-muga hauekin:
 - 1,5 puntu bigarren lizentziatura edo master bakoitzeko, gehienez 3 puntu.
 - Puntu bat 200 ordu baino gehiagoko ikastaro, graduondo, titulu edo baliokide bakoitzeko, gehienez 2 puntu.
 - 0,5 puntu 100-199 ordu arteko ikastaro bakoitzeko, gehienez puntu 2.
 - 0,25 puntu 20-99 ordu arteko ikastaro, jardunaldi edo baliokide bakoitzeko, gehienez 1 puntu.

Informatika ikastaroak goiko ataletan baloratuko dira. Gehienez informatikako 3 ikastaro baloratuko zaizkio izangai bakoitzari.

Atal bakoitzean egiaztatutako ikastaro, gradu ondo, titulu edo baliokideek atal horretarako ezarritako gehienezko muga gainditzen badute, hurrengo atalean balioetsiko dira.

4. Laugarren hizkuntza eskakizuna: 2 puntu.
5. Hizkuntzak: ingelesa, frantsesa eta alemana. Bakoitzeko puntu 1 eta gehienez 2 puntu. Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo baliokideak hartuko dira kontuan.

OINARRI ZEHATZAK II

ENPRESA TEKNIKARIEN LAN-POLTSA

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK MEREZIMENDUEN BALORAZIOA

15. Parte hartzeko baldintzak

Enpresa teknikarien lan-poltsan onartua izan eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko ondoren zehazten diren baldintza orokorrak eta zehatzak (lan-poltsa zehatzari dagozkion baldintzak) bete behar dituzte hautagaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen:

15.1. Baldintza orokorrak

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek 21 urte baino gutxiago badituzte edo gehiago izanik bere kontura bizi badira.

Halaber, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan egoiliar gisa dauden pertsona atzerritarrek, nahiz eta aurreko paragrafoetan adierazitako baldintzak bete ez. Horietako bat hautatua izango balitz, kontratua gauzatu aurretik egiaztatu egin beharko luke kontratuaren objektu den jarduera burutzeko behar duen administrazio-baimena baduela.

- b) 16 urte beterik izatea eta derrigorrezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.
- c) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Baldintza hori egiaztatu beharko dute kontratua egiteko proposamena jasotako izangaiek, eskatzen zaien unean.
- d) Diziplina-espediente bidez administrazio publikoen, organo konstituzionalen edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen zerbitzura aritzeko bananduta ez egotea; halaber, epai bidez desgaitze absolutu edo berezirik ez izatea, lanpostu edo kargu publikoan aritzeko, funtzionarioen eskalan sartzeko edo, lan itunpeko langileen kasuan, desgaitutako lanpostuaren antzeko eginkizun edo jarduerak burutzeko. Beste estatu bateko naziotasuna izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea; halaber, bere estatuan enplegu publikoa lortzea galarazten dion diziplina zigor edo antzekorik ez izatea.
- e) Administrazioan lan egiteko bestelako bateraezintasun edo ezintasunik ez izatea, dagozkion lege-xedapenek ezarritakoaren argitara.

15.2. Baldintza zehatzak

Enpresa teknikarien lan-poltsan parte hartzeko, aurreko baldintza orokorrez gain, baldintza zehatz hauek bete behar dira:

- a) Honako unibertsitate graduren baten tituluaren jabe izatea edo eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea: Ekonomia, Enpresa Zientziak, Zuzenbide Ekonomikoa edo Industria Ingeniaritza (edo baliokideak).
- b) 3. hizkuntza eskakizunaren tituluaren jabe izatea (edo C1 mailaren baliokidea).

16. Merezimenduen lehiaketa

Epaimahaiak onartutako izangaien merezimenduak baloratuko ditu. Hona hemen enpresa teknikarien lan-poltsan merezimenduak baloratzeko kontuan hartuko diren irizpideak:

Lehiaketan gehienez **35 puntu** lortu ahal izango dira. Ondoko merezimendu hauek baloratuko dira:

1. Lan-esperientzia enpresa teknikari gisa, enpresen lehiakortasuna hobetzeko programa eta ekintza publikoak garatzen eta kudeatzen (aholkularitza, laguntza, prestakuntza), administrazio publikoan nahiz enpresa pribatuetan. Honela baloratuko da: hilabete oso bakoitzeko 0,5 puntu. Atal honetan gehienez ere 15 puntu lortu ahal izango dira. Parte hartzeko eskatutako lan-esperientzia ez da baloratuko.
2. Lan-esperientzia, enpresen lehiakortasuna hobetzeko programa eta ekintzekin zerikusia duten jarduera osagarrietan, administrazio publikoan nahiz enpresa pribatuan. Honela baloratuko da: hilabete oso bakoitzeko 0,25 puntu. Atal honetan gehienez ere 8 puntu lortu ahal izango dira.

Lanpostu batek aurreko irizpide horiekiko zer-nolako antza duen Epaimahaiak aztertu eta erabakiko du, eta egoki irizitako zuzenketa faktoreak aplikatuko ditu, bai hilabete bakoitzeko eman beharreko puntu kopuruari dagokionez, bai lor litekeen gehienezko kopuruari dagokionez.

3. Prestakuntza: enpresen lehiakortasuna hobetzeko programa eta ekintzen kudeaketarekin lotuta dauden prestakuntza osagarri, titulu akademiko, jardunaldi, ikastaro eta antzekoak. Gehienez 8 puntu lortu ahal izango dira, atal-muga hauekin:
 - 1,5 puntu bigarren lizentziatura edo master bakoitzeko, gehienez 3 puntu.
 - Puntu bat 200 ordu baino gehiagoko ikastaro, graduondo, titulu edo baliokide bakoitzeko, gehienez 2 puntu.
 - 0,5 puntu 100-199 ordu arteko ikastaro bakoitzeko, gehienez puntu 2.
 - 0,25 puntu 20-99 ordu arteko ikastaro, jardunaldi edo baliokide bakoitzeko, gehienez 1 puntu.

Informatika ikastaroak goiko ataletan baloratuko dira. Gehienez informatikako 3 ikastaro baloratuko zaizkio izangai bakoitzari.

Atal bakoitzean egiaztatutako ikastaro, gradu ondo, titulu edo baliokideek atal horretarako ezarritako gehienezko muga gainditzen badute, hurrengo atalean balioetsiko dira.

4. Laugarren hizkuntza eskakizuna: 2 puntu.
5. Hizkuntzak: ingelesa, frantsesa eta alemana. Bakoitzeko puntu 1 eta gehienez 2 puntu. Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila edo baliokideak hartuko dira kontuan.

OINARRI ZEHATZAK III

SOLDADURA/GALDARAGINTZAKO IRAKASLEEN LAN-POLTSA

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK MEREZIMENDUEN BALORAZIOA

17. Parte hartzeko baldintzak

Soldadura/galdaragintzako irakasleen lan-poltsan onartua izan eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko ondoren zehazten diren baldintza orokorrak eta zehatzak (lan-poltsa zehatzari dagozkion baldintzak) bete behar dituzte hautagaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen:

17.1. Baldintza orokorrak

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek 21 urte baino gutxiago badituzte edo gehiago izanik bere kontura bizi badira.

Halaber, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan egoiliar gisa dauden pertsona atzerritarrek, nahiz eta aurreko paragrafoetan adierazitako baldintzak bete ez. Horietako bat hautatua izango balitz, kontratua gauzatu aurretik egiaztatu egin beharko luke kontratuaren objektu den jarduera burutzeko behar duen administrazio-baimena baduela.

- b) 16 urte betetik izatea eta derrigorrezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.
- c) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Baldintza hori egiaztatu beharko dute kontratua egiteko proposamena jasotako izangaiek, eskatzen zaien unean.
- d) Diziplina-espediente bidez administrazio publikoen, organo konstituzionalen edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen zerbitzura aritzeko bananduta ez egotea; halaber, epai bidez desgaitze absolutu edo berezirik ez izatea, lanpostu edo kargu publikoan aritzeko, funtzionarioen eskalan sartzeko edo, lan itunpeko langileen kasuan, desgaitutako lanpostuaren antzeko eginkizun edo jarduerak burutzeko. Beste estatu bateko naziotasuna izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea; halaber, bere estatuan enplegu publikoa lortzea galarazten dion diziplina zigor edo antzekorik ez izatea.
- e) Administrazioan lan egiteko bestelako bateraezintasun edo ezintasunik ez izatea, dagozkion lege-xedapenek ezarritakoaren argitara.

17.2. Baldintza zehatzak

Soldadura/galdaragintzako irakasleen lan-poltsan parte hartzeko, aurreko baldintza orokorrez gain, baldintza zehatz hauek bete behar dira:

- a) Soldaduraren prestakuntza-arloko Goi Mailako Teknikariaren titulua (edo baliokidea) edukitzea (edo eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea) edo, prestakuntza arlo horrekin lotutako lanbidean gutxienez 3 urteko esperientzia izatea (soldadura edo galdaragintzako irakasle gisa, edo lan esperientzia soldadura edo galdaragintzako lehen mailako ofizialaren kategorian).
- b) Lan arriskuen prebentzioa: oinarrizko prestakuntza maila.

18. Merezimenduen lehiaketa

Epaimahaiak onartutako izangaien merezimenduak baloratuko ditu. Hona hemen soldadura/galdaragintzako irakasleen lan-poltsan kontuan hartuko diren irizpideak:

Lehiaketan gehienez **35 puntu** lortu ahal izango dira. Ondoko merezimendu hauek baloratuko dira:

1. Lan-esperientzia soldadura/galdaragintzako irakasle gisa (fabrikazio mekanikoa, eraikin metalikoak, soldadura eta galdaragintza, oxigas eta mig-mag soldadura): administrazio publikoan nahiz enpresa pribatuetan. Honela baloratuko da: hilabete oso bakoitzeko 0,5 puntu. Atal honetan gehienez ere 15 puntu lortu ahal izango dira. Parte hartzeko eskatutako lan-esperientzia ez da baloratuko.
2. Lan-esperientzia soldadura/galdaragintzako irakaskuntzaren osagarri izan daitezkeen jardueretan (beste irakasgai batzuetan irakasle izatea, soldadore gisa lan egin izana...), administrazio publikoan nahiz enpresa pribatuan. Honela baloratuko da: hilabete oso bakoitzeko 0,25 puntu. Atal honetan gehienez ere 8 puntu lortu ahal izango dira.

Lanpostu batek aurreko irizpide horiekiko zer-nolako antza duen Epaimahaiak aztertu eta erabakiko du, eta egoki iritzitako zuzenketa faktoreak aplikatuko ditu, bai hilabete bakoitzeko eman beharreko puntu kopuruari dagokionez, bai lor litekeen gehienezko kopuruari dagokionez.

3. Prestakuntza: irakaskuntzarekin, fabrikazio mekanikoarekin, soldadurarekin eta lan arriskuen prebentzioarekin lotuta dauden edo zerikusia duten prestakuntza osagarri, titulu akademiko, jardunaldi, ikastaro eta antzekoak. Gehienez 8 puntu lortu ahal izango dira, atal-muga hauekin:
 - 1,5 puntu bigarren lizentziatura edo master bakoitzeko, gehienez 3 puntu.
 - Puntu bat 200 ordu baino gehiagoko ikastaro, graduondo, titulu edo baliokide bakoitzeko, gehienez 2 puntu.
 - 0,5 puntu 100-199 ordu arteko ikastaro bakoitzeko, gehienez puntu 2.
 - 0,25 puntu 20-99 ordu arteko ikastaro, jardunaldi bakoitzeko, gehienez 1 puntu.

Informatika ikastaroak goiko ataletan baloratuko dira. Gehienez informatikako 3 ikastaro baloratuko zaizkio izangai bakoitzari.

Atal bakoitzean egiaztatutako ikastaro, gradu ondo, titulu edo baliokideek atal horretarako ezarritako gehienezko muga gainditzen badute, hurrengo atalean balioetsiko dira.

4. Lan arriskuen prebentzioa: erdi mailako prestakuntza (edo goragokoa): 2 puntu.
5. 3. hizkuntza eskakizunaren tituluaren jabe izatea (edo C1 mailaren baliokidea): 2 puntu.



I. ERANSKINA

ESKABIDEA

LAN-POLTSAK ERATZEKO DEIALDIA
ENPLEGU TEKNIKARIAK, ENPRESA TEKNIKARIAK ETA SOLDADURA IRAKASLEAK

DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak	NAN zk	Jaioteguna
E-posta	Telefonoa	
Helbidea	Herria	Posta kodea

Hautaketa-prozesu honen deialdia eta oinarriak kontuan hartuta, honakoa ADIERAZTEN DUT:

1. Eskabidean agertzen diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen ditudala.
2. Eskabide honen atzealdean adierazten ditudala lehiaketan balioesteko merezimenduak.
3. Baimena ematen dudala nire datu pertsonalak tratatzeko, oinarrietan azaltzen den moduan.
4. Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala dudala eta egiaztatuko dudala Udal Elkarteak horrela eskatzen didanean.
5. Ez nagoela desgaituta diziplina-espedita edo epai bidez administrazio publikoen zerbitzura aritzeko eta ez dudala Administrazioan lan egiteko bestelako bateraezintasun edo ezintasunik.

Horrenbestez, **ESKATZEN** dut honako lan-poltsaren hautaketa-prozesuan parte hartzeko (adierazi "X" batekin):

<input type="checkbox"/>	ENPLEGU TEKNIKARIAK
--------------------------	------------------------

<input type="checkbox"/>	ENPRESA TEKNIKARIAK
--------------------------	------------------------

<input type="checkbox"/>	SOLDADURA IRAKASLEAK
--------------------------	-------------------------

ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK

- NANren fotokopia konpultsatua.
- Parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua.
- 3. hizkuntz eskakizunaren egiaztagiraren fotokopia konpultsatua (soldadura irakasleak izan ezik).
- Curriculum Vitae-a.
- Lan-bizitza eguneratua.
- Lehiaketan parte hartzeko edo baloratzeko eskatzen den lan-esperientziaren egiaztagiriak.
- Lehiaketan parte edo baloratzeko prestakuntza tituluen egiaztagiriak.
- Lan arriskuen prebentzioa: oinarritzko prestakuntza maila (soldadura irakasleak soilik)

Data eta sinadura

LEHIAKETAN BALORATZEKO MEREZIMENDUAK

Lan esperientzia

Administrazioa / Enpresa	Lanpostua	Hasiera UU/HH/EE	Amaiera UU/HH/EE

Prestakuntza

Emailea (ikastegia, unibertsitatea...)	Ikastaroaren izenburua	Ordu kopurua